



A K T A

Aiarako Kuadrillaren TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK egindako ohiko/ezohiko bilkurarena,

2020ko uztailaren 17koa

Aiarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:37ak direnean, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira ezohiko bilkura egiteko, lehen deialdian. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente Encina Castresana Astarloa andrea izan da bilkuraren burua, eta M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzordekideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Montserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Josune IRABIEN MARIGORTA (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH BILDU)
Nagore GOMARA PICAZA (EH BILDU)
Irene ITURBE ERRASTI (EH BILDU)
Joseba VIVANCO RETES (EH BILDU)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH BILDU)
Alvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Ez dira bertaratu eta ez etortzea justifikatu dute honako jaun/andre batzordekide hauek:

Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)



Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Lamia ARCAS NOGALES (EH BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH BILDU)
Jon BERGANZA URRUELA (EH BILDU)
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH BILDU)

Kuadrillako Batzordeburu andreak, lehenengo deialdian, 13:37an, ezohiko osoko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

Bilkura hasi aurretik, **Batzordeburu andreak** hitzaldi txiki bat eman du, Kuadrilla atzo (uztailak 16) egindako COVID-19aren biktimentzako omenaldira batu dadin, biktimak, horien familiak eta gaitza gainditu dutenak gogoan izateko, baita COVID-19aren aurka borrokan lehenengo lerroan egon diren profesional guztiek egindako esfortzua aitortzeko.

1.- EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA

Batzordeburu andreak deia egin dio Okondoko Udaleko Naiara Otaola Gonzalez (EH BILDU) batzarkide andreari, bere egiaztagiria aurkez ditzan.

Horiek aurkeztu eta egiaztatu ondoren (Kuadrillei buruzko Foru Arauaren 21.3 artikulua araberan), eta Kuadrillako Batzarraren aurrean egiaztatu ondoren, bere funtzioak gauzatzen hasteko beharrezko baldintza bete du.

2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta presidenteak galdetu du inork alegaziorik egin nahi duen.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZen bozeramaile gisa) adierazi du 2019-12-27ko zirriborroan akats bat dagoela aktako hirugarren puntuko bozketan; izan ere, guztira 15 aldeko boto izan ziren (12 EAJ-PNVrenak, Escuza jaunak Alamillo jaunarengan eskuordetu zuelako botoa, SOZIALISTEN 2 boto eta AIARA BATUZ taldearen 1 boto).



Alegazioak amaitutakoan, bozkatu egin da eta aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- 2019ko abenduaren 27an eginiko bilkuraren akta onestea; horri honako aldaketa hauek egingo zaizkio:

3. puntuko bozketaren emaitza aldatzea, aldeko botoak 15 izan daitezten (12 boto EAJ-PNVrenak, Escuza jaunak Alamillo jaunarengan eskuordetu zuelako botoa, **SOZIALISTEN 2 boto** eta AIARA BATUZ taldearen 1 boto), eta ez 13, aktaren zirriborroan agertzen den moduan.

Batzordeburu andreak honako hau zehaztu nahi du OMNIA, OKONDO AURRERA eta AIARA BATUZ taldeek aurkeztutako aurretiazko berraztertze-errekurtsoekiko erantzun gisa: bilkura honen deialdian erabaki zen maiatzeko ohiko bilkura ez deitzea, pandemiak sortutako konfinamenduagatik eta Kuadrillak ez zuelako baliabide elektronikorik, ezta bilkura iragartzeko beharrezko baldintza betetzeko ere. Gainera, ez deitzea erabaki zen osasuna babesteko, eta bilkura hori “normaltasun berriko” epera atzeratu zen, ekainaren 26ra. Hala ere, hori COVID-19aren protokoloaren ondorioz atzeratu behar izan zen, ekainaren 25ean aurkitutako COVID-19aren kasu posible baten aurrean. Ondorioz, uztailaren 17ra atzeratu zen, ordezkari guztien onespenearekin. Bilkura telematikoki egin zitekeela esateari dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeko eta Informazio Batzordeetako bilkuretan egin bezala, adierazi nahiko luke organo horien bilkurek ez dutela nahitaez publizitate-baldintza bete behar; horregatik egin ziren telematikoki. Hala ere, osoko bilkurak baldintza hori bete behar du, eta, beraz, ezin zen horrela egin.

Ingurumen eta Ogasun Batzordeen ohiko bilkurak ez egiteari dagokionez, onartu du ez direla egin, baina arrazoi zehatzengatik: ingurumen arloko teknikaria oso garrantzitsuak ziren espedienteak ixtean arreta jarri behar zuen, aldi baterako kontratatutako teknikariak horiek amatasun-bajan egon zen beste teknikariari igorri ahal izateko. Gainera, Ogasun Batzordeari dagokionez, oraindik ez zegoen amaituta Kontu Orokorra, eta horregatik deitu zen bilkura ekainaren 16rako eta ez maiatzerako, momentu hartan Kontu Orokorra onetsita egongo zelako. Halaber, adierazi du egiaztatu daitekeela pandemiaren aurretik batzorde guztien ohiko bilkurak egin zirela, baita ezohikoak ere. Gainera, gogorarazi du Kuadrillan informazio-batzordeen bilkuretara joateko quoruma lortzeko arazo handiak daudela.

Era berean, **aipatutako taldeek bilkura honetan puntu gisa sartzeko aurkeztutako mozioari dagokionez**, azaldu du bilkura ezohikoa denez ezin dela eguneko gai-zerrendan puntu berririk sartu. Proposatu du gaia sartzeko dagokion Informazio Batzordearen bilkura batean.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) azaldu du puntua bilkuraren gai-zerrendan sartzeko posible izango zela. Horri dagokionez, baieztatu du ohiko osoko bilkurak deitu egin behar direla nahiz eta puntu gehiagorik ez egon aurreko akta onestea eta eskaerak eta galderak baino. Izan ere, horrela, gobernuaren kontroleko oposizioaren funtzioa betetzen da; gainera, ohiko bilkurek eskaera eta galderen puntua dute, kontroleko helburua bete ahal izateko. Kuadrillako informazio-batzordeen quorumen gaiari dagokionez, uste du orain dela asko dugun arazoa dela; adierazi du bera ahal izan duen guztietan joan dela batzordeetara.



Batzordeburu andreak adierazi du informazio-batzordeak egiteko quoruma lortzeko arazoak egon ohi direla, kideak bertaratuko diren edo ez jakiteko telefonoz deitu behar zaielako, eta, hala ere, zailtasunak egoten direlako. Gainera, Informazio Batzordeek egindako bilkura guztietara, legegintzaldi honetan, ez da OMNIAko kideetako bat bera ere bertaratu, eta hori ohiko osoko bilkurara eraman da. Pandemia dela-eta gertatu da hori, eta adierazitako arrazoiengatik.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) azaldu du organoen ohiko bilkurak ez deitzearen ondorioz, Tokiko Gobernu Batzordean ordezkariarik ez duten taldeak informatu gabe geratu direla.

Batzordeburu andreak azaldu du erakundeak berezko indarra izatea nahi badugu, organoen saioetara joan beharko dugula. Ez du ezertarako balio bilkurak deitzea eta inor ez joatea. Gainera, adierazi du Tokiko Gobernu Batzordera gonbidatu dituztela, baina ez direla batera ere bertaratu; beraz, uste du ez dela egia informatu gabe daudenik, Tokiko Gobernu Batzordearen bilkura guztien dokumentazioa jasotzen dutelako, beti betetzen den legezko baldintza baita.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) esan du ohiko bilkurak deitu egin behar direla, eta jorrazteko gairik ez egotea ez dela bilkurak ez deitzeko baliozko argudioa; gainera, horietan eskaera eta galderen puntua dago eta hori da oposizioko taldeek duten ikuskatze-tresna.

Eztabaida egon da berriz ere **batzordeburu andrearen eta González García andrearen** artean, bilkurak ez egitearen inguruan. Alde batetik, TGBan ordezkariarik ez duten taldeak erabat haserre daude, ez dutelako informaziorik; ohiko osoko bilkurara ez gonbidatzeari dagokionez, haserre daude ez delako beste ohiko osoko bilkura bat egingo azarora arte. Bestalde, batzordeburuak adierazi du ohiko osoko bilkura hori eta batzordeak ez direla egin hainbat arrazoiengatik. Horrez gain, esan du taldeei ez zaiela falta inongo informaziorik Tokiko Gobernu Batzordearen gai-zerrendako puntuen eduki guztien azalpen-dokumentua jasotzen dutelako.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) jakinarazi du Laudioko Udalean eta Kuadrillako gainerako udaletan pandemian zehar ohiko osoko bilkurak egin direla, eta ez duela ulertzen Kuadrillak egin ez izana, baliabide teknikoak egon arren. Aitortu du uztailaren 17ko deialdi honetarako saiatu zela taldeak bateratzen, baina adierazi du horrek ez duela konpontzen azarora arte ohiko osoko bilkurarik ez egitea; horrek oposizioko taldeak haserretu ditu.

Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) adierazi du hainbat baieztapen egiten ari direla, baina ez direla egia eta horiekiko zehaztapenak egin nahi dituela. Alde batetik, ezohiko bilkuren gaia dago. Horietara ezin da puntu berririk sartu, eta, beraz, bere dataz kanpo deitzen den edozein bilkura ezohikoa izango da eta ezingo zaio puntu berririk sartu bilkura honetara sartu nahi zuten mozioari begira. Maiatzeko ohiko bilkuraren garapenari dagokionez, Kuadrillak ez zuen beharrezko baliabide tekniko nahikorik osoko bilkura egiteko, eta hori egin da egoerak baimendu duenean. Beste alde batetik, esaten ari da Tokiko Gobernu Batzordean ordezkariarik ez duten taldeek ez dutela informaziorik, baina



uste du hori ez dela egia, bilkuren deialdiarekin batera, talde guztiei informazioa ematen baitzaie legez, gai guztien inguruko informazioa ematen zaielako eta bilkura guztietara gonbidatzen dituztelako, nahiz eta inoiz egin ez duten. Ez dago inongo zalantzarik. Kuadrilla, gainerako udalen antzera, pandemiak sortutako egoera latzei aurre egiten saiatzen egon da, eta horri eman dio lehentasuna. Beraz, ez du irudi faltsurik eman nahi; argi utzi nahi du ez direla ordezkari politikoaren eskubideak urratzen saiatu.

Barrios Medina jaunak (OMNIAko bozeramaile gisa) adierazi du nahikoa baliabide tekniko zegoela ohiko osoko bilkura egin ahal izateko telematikoki; beraz, egin ez izanak oposizioaren eskubideak urratu ditu eta ez da egon Tokiko Gobernu Batzordean ordezkariarik ez duten taldeentzako informaziorik.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) azaldu du Kuadrillak ez zuela baliabiderik, eta, ondorioz, behin horiek lortuta, Kuadrillari utzi ahal zizkiotela. Horri dagokionez, Alamillo Udaeta jaunari galdetu dio baliabide tekniko horiek Kuadrillari utziko zitzaizkion aipatutako bilkura egiteko.

Alamillo Udaeta jaunak baietz erantzun du.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) azaldu du Kuadrillari utzi ahal izango zitzaizkiola, baina ez zituela inork eskatu. Jarraian, esan du bilkura hau talde guztien onespenerarekin deitu dela, baina gainerakoaren inguruan ez dela inongo batasunik egon, eta uste du batzordeburuak hurbiltasun handiagoa izan beharko lukeela talde guztiak informatzeari dagokionez. Era berean, zehaztu nahi du Euskara eta Gazteria Batzordea ere ez dela egin.

Barrios Medina jaunak (OMNIAko bozeramaile gisa) adierazi du ez dagoela ados gaia Batzorde batean lantzearekin. Hori da batzordeburuaren proposamena, mozioa aztertzea gerora ohiko osoko bilkurara eramateko. Gainera, hori Turismo Saila osatzen duten hiru taldeek eraman beharko lukete.

Parte-hartze horiek amaitzean, eguneko gai-zerrendarekin jarraituko da.

3.- CESA ENPRESAREN JUDIZIOZ KANPOKO FAKTURAK ONESTEA

1.- Aurrekariak:

Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinen eta antzekoen kudeaketa- eta garraio-zerbitzua sinatu, esleitu eta ematen hasi zenetik (2019ko otsailaren 1etik) gertatutakoa adierazi da, Kuadrillako hondakinak garraiatu eta biltzeko zerbitzua erabat ezartzeko epeak igaro ondoren. Zerbitzua COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES SAK (CESPA) ematen du.



Hala ere, zerbitzua ezartzeko kronograma erabat hautsi denez, enpresaren legezko ordezkariekin egindako hainbat bileraren ondoren (zerbitzua emateko arduradunarekin egindako bilerez, telefono-deiez, mezu elektronikoez eta Whatsappez gain), maiatzaren 3ko 39/2020 Dekretuak adierazi bezala eta etengabeko ez-betetzeen ondoren, enpresak fakturak emandako zerbitzuetara egokitu gabe, 2019. urteko ordainketa eten egin zuen ingurumen-teknikariak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren 307.1 artikuluan ezarritako oinarrizko prerrogatiba publikoaren helburua baita prezioa kontratistak emandako zerbitzuen errealitatera egokitzea. Prerrogatiba hori dagokion egoera gertatzen den momentuan gauzatu dezake (ez da epeka ezarritako zehapen-espeditente bat hastea, baizik eta kontratua ez-betetzeagatik zehapen bat epeka jartzea).

Aldi berean, zerbitzua ezartzean, kontratuaren ez-betetze sistematikoengatik zehapen-espeditente bat ireki zen (lau taldetan sailkatu ziren ez-betetzeak: kontratuaren ez-betetzeak, betetze akastunak, zerbitzuak ez ematea eta informazio-eginbearra ez betetzea). Enpresa esleipendunarekin lehenengo bilera bat egin zen zerbitzuak kronogramara egokitzeko eta horiek ezartzeko, eta eskatu zitzaion zerbitzua ezartzeko kronograma berri bat egiteko. Hala ere, ez zenez hori lortu, beste bilera batzuk egin ziren eta adierazi zitzaion zehapen bat ezarriko zitzaiola kontratua ez betetzeagatik.

Zehapen-erabakia hartzeko proposamena jakinarazi ondoren, interesdunari entzunaldia eman zitzaion, enpresak alegazioak aurkeztu ahal izateko. CESPAAk alegazioak aurkeztu zituen apirilean, eta 2020-06-03an Tokiko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran erabaki zen kontratua ez betetzeagatik zehapen bat jartzeko proposamena berrestea. Berriz ere entzunaldia eman zitzaion interesdunari, alegazioen erantzunean dokumentazio berria erantsi ondoren; hau da, dokumentazio sakonagoa eman zitzaion eta 3 eranskin gehitu ziren, zeinak egindako kontratuaren ez-betetzeen frogak jasotzen zituzten.

2.- Legezko ondorioak:

Orain arte egindakoa ikusi ondoren eta martxoaren erdialdean alarma-egoera ezarri ondoren, aintzat hartuta zerbitzu hori funtsezko zerbitzu bihurtu zela, honako hau ikusi zen:

- Zerbitzu hori emateari ez uzteko beharra.
- Kontratua handitu egin zen edukiontzia eta ekarpen-eremua desinfektatzeko, alarma-egoera ezartzea eragin zuen COVID-19aren pandemiak sortutako egoera berezia dela-eta. Funtsezko zerbitzua zenez eta horren kontratuaren oreka ekonomikoa aldatzeko arriskua zegoenez (nahiz eta espedientean ez-betetzeak eta betetze akastunak jasota egon), CESPAA SA enpresari fakturak ordaintzea erabaki da.
- Prezioaren deskontuaren eta zehapenen arteko bateragarritasuna.- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren 212. artikulua ematen duen eskumenaren arabera (pleguez “ahal izango dute”), pleguez zehapenak ezartzen dituzte kontratuaren helburua ez bada behar bezala betetzen (Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 24. artikulua).
- Kontratua ez betetzeagatik ezarriko den zehapena ez da epe baten arabera izango, ez delako zehapen-prozedura bat; hau da, iraungitzea ez da egoera horretara aplikatzen (Auzitegi Gorenak ezarritako doktrina).



- Kuadrillaren presidentek esleituta dituen eskumenak, honako hauen arabera:
 - o 463/2020 Errege Dekretuak koronabirusa dela-eta alarma-egoera ezarri zuen eta fakturak judizioz kanpoko aitortzeko eskumeneko organoa zehaztu zuen.- TOLTBren 176. artikularen 2. atalean ezarritakoaren arabera, salbuespena da kredituen denborazkotasun-printzipioa, eta hori gehitu egiten zaio 500/1990 EDren 26.2 artikuluan ezarritakoari:
 - o Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. artikularen 3. atala, aipatutako 463/2020 Errege Dekretuaren arabera.
 - o Alarma-egoera amaitu arte betebeharraren aitortza (edo baita larrialdi-emakidak lortzeko akordioa ere) atzeratu ezin bada, alkateak berak aurrekontua aldatzeko espedientea onestea onartu ahal izango da, dagokion eskumenen babespean, aipatutako salbuespenetzko kasuetan: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzkoaren 41.24 artikulua.
 - o Ikus daitekeenez, aipatutako aparteko ahalmena alkateari egozten zaio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 120. artikuluan eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, hau da, egoera katastrofiko eta arrisku handikoetan.

3.- Berretsi beharreko hartutako erabakia:

Maiatzaren 4ko 39/2020 Presidentetza Dekretuaren bidez, honako hau onetsi da:

“LEHENENGOA.- Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean legediak ematen dizkidan eskumenak ikusita, CESPASA enpresak 2019 ekitaldian sortutako fakturak onesteko (horiek 2018ko abenduaren 11n sinatutako kontratua dela-eta sortu ziren). Kontratua sinatu zen Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinak eta antzekoak garraiatu eta biltzeko zerbitzua emateko. Beraz, aipatutako fakturak judizioz kanpo ordaintzeko espedientea irekiko da eta Kuadrillako Batzordeari jakinaraziko zaio gauzatutako guztia egiten den lehenengo bilkuran.

BIGARRENA.- Onestea honako faktura hauek judizioz kanpo aitortzearen ondoriozko ordainketa betebeharra. Fakturak 2019 ekitaldian igorri zituen CESPACOMPañía Española de Servicios Públicos Auxiliares SA enpresak:

Fakturaren hilabetea	Fakturaren data	Faktura-zk.	GUZTIRA BEZik gabe	GUZTIRA BEZarekin
19ko api.	2019/05/23	5603168386	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko mai.	2019/05/31	5603168377	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko eka.	2019/06/30	5603169482	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko uzt.	2019/07/31	5603170455	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko abu.	2019/08/31	5603171538	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko ira.	2019/09/30	5603172790	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko urr.	2019/10/31	5603174073	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko aza.	2019/11/30	5603175316	82.230,82 €	90.453,90 €



19ko abe.	2019/12/31	5603176515	82.230,82 €	90.453,90 €
		GUZTIRA	740.077,38 €	814.085,10 €

Indarrean dagoen aurrekontuaren kredituetara aplikatuko dira, 2019 ekitaldian sortutako betebeharrak aitortzen diren momentuan.

HIRUGARRENA.- Faktura horiek ordaintzeak ez du esan nahi egindako ez-betetzeak edo betetze akastunak konpondu direnik, eta ordainketa egiteko arrazoi bakarria izan da kontratuaren oreka ekonomikoa mantentzea COVID-19ak sortutako egoera ekonomiko bereziagatik eta funtsezko zerbitzu etengabea izateagatik.

Batzordeburu andreak galdetu du deialdiarekin erantsitako dokumentazio guztia ikusi ondoren (hori jasota geratuko da aktan gaiaren oinarri gisa), inork ezer azaldu nahi duen edo talderen batek parte hartu nahi duen.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) jakinarazi du orain arte adierazitakoari dagokionez eta gai hau aipatutako guztiarekin lotzeko, ez dela inongo arloko batzorderik egin eta ez dela teknikariekin harremanik izan. Bere taldeak aurka bozkatuko du.

Eztabaida amaitzean, gehiengoak ADOSTU DU, aldeko 18 botorekin (EAJ-PNVren 11 boto, EH BILDUREN 5 boto eta SOZIALISTEN 2 boto) eta aurkako 4 botorekin (OMNIAren 2 boto, OKONDO AURRERAREN 1 boto eta AIARA BATUZ taldearen 1 boto), honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Maiatzaren 4ko 39/2020 Presidentetza Dekretua berrestea, eta onestea honako faktura hauek judizioz kanpoko aitortzearen ondorioz ordaintzeko betebeharra. Fakturak 2019 ekitaldian igorri zituen CESPACOMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES SA enpresak:

Fakturaren hilabetea	Fakturaren data	Faktura-zk.	GUZTIRA BEZik gabe	GUZTIRA BEZarekin
19ko api.	2019/05/23	5603168386	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko mai.	2019/05/31	5603168377	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko eka.	2019/06/30	5603169482	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko uzt.	2019/07/31	5603170455	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko abu.	2019/08/31	5603171538	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko ira.	2019/09/30	5603172790	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko urr.	2019/10/31	5603174073	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko aza.	2019/11/30	5603175316	82.230,82 €	90.453,90 €
19ko abe.	2019/12/31	5603176515	82.230,82 €	90.453,90 €
		GUZTIRA	740.077,38 €	814.085,10 €

Indarrean dagoen aurrekontuaren kredituetara aplikatuko dira, 2019 ekitaldian sortutako betebeharrak aitortzen diren momentuan.

BIGARRENA.- Faktura horiek ordaintzeak ez du esan nahi egindako ez-betetzeak edo betetze akastunak konpondu direnik eta ordainketa egiteko arrazoi bakarria izan da kontratuaren oreka ekonomikoa mantentzea COVID-19ak sortutako egoera ekonomiko bereziagatik eta funtsezko zerbitzu etengabea izateagatik.



4.- “ZARAOBE GAINKO ETXEA” ERAIKINA ITZULTZEA AIARAKO UDALARI

Deialdiaren dokumentazioan erantsitako txosten juridikoan honako ondorio hauek adierazten dira:

- Aiarako Kuadrillak higiezin horren jabetza galdu du 2000. urteaz geroztik, Aiarako Udalak Zaraobe Gainko Etxea eta haren ondasunak Kuadrillari doan erosteko ezarritako baldintza suntsiarazlea ez betetzeagatik.
- Eraikinaren erosketa-eskitura publikoak zehazki adierazten du honako hau: *“Hori betetzen ez dela adierazten duen notario-akta eta aipatutako eskitura publikoa aurkeztu beharko dira soilik titulartasuna leheneratzeko”*. Aplikatu daitekeen legeria ikusi ondoren, gainera, Udalbatzak erabaki bat hartuko du eta bertan jasoko da ez-betetzea. Ondoren, Aiarako Udalarari jakinaraziko zaio dena, eraikina hasierako titularrari itzultzeko.

Era berean, bilkuraren dokumentazioarekin batera, erantsi egin da **PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIO JARDUKETA, FUNTZIO PUBLIKO, KONTZEJU, ADIMINISTRAZIO FORAL, AUTONOMIKO ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMAN, OBRA ETA ZERBITZUEN** Informazio Batzordeak egindako aldeko irizpena, 2020-06-16an egindako bilkuran. Bertan, gehiengoak, EAJ-PNV, EH BILDU eta SOZIALISTEN aldeko botoarekin eta OMNIAREN abstentzioarekin, honako **irizpen** hau eman zuen:

Batzordeburu andreak adierazi du nahi duenak parte hartu dezakeela.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) adierazi du esleipena egin eta bi urtera itzuli egin behar izango zela. Horrez gain, adierazi du bere taldeak proposatu nahi duela Kuadrillari baliabideak hornitzeko eskatzea, baita eta Kuadrillaren egoitza Laudion egon behar duela dioen Foru Araua betetzeko ere.

Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) esan du gai hori beti egon dela mahai gainean Kuadrillan eta aurreko legegintzaldian gaia eztabaidatu zela eta udalek Kuadrillaren kokalekurako alternatibak proposatu zituztela. Foru Arauak Laudion ezartzen duenari dagokionez, uste du Kuadrillako udalek erabakitzen dutenaren arabera jokatu beharko dugula horren behin betiko kokapenerako. Gainera, horri lotuta, denbora izango dugu aldatu nahi badugu, Udalbatzak Kuadrillako egoitza berri bat eskatu nahi badu, hala egingo du. Hala ere, ulertu behar dugu egun oso egoera berezia dugula gai honi ekiteko.

Eztabaida amaitzean, gehiengoak **ADOSTU DU**, aldeko 18 botorekin (EAJ-PNVren 11 boto, EH BILDUREN 5 boto eta SOZIALISTEN 2 boto) eta 4 abstentziorekin (OMNIAren 2 boto, OKONDO AURRERAREN 1 boto eta AIARA BATUZEN 1 boto), honako **ERABAKI** hau hartzea:



IKUSI DA egindako txosten juridikoa; bertan proposatzen da eraikina itzultzeko, 2000. urtetik ez-betetzeak gertatu direlako Aiarako Udalak ezarritako ebazpen-baldintzari dagokionez “Zaraobe gaineko etxea” eraikina eta horren lursaila dohainik lagatzeko eta Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

LEHENENGOA.- Arloko Informazio Batzordeak egindako irizpena berrestea eta “Zaraobe gaineko etxea” deitutako eraikina Aiarako Udalari itzultzea, azken horrek ezarritako ebazpen-baldintza ez betetzeagatik. Hori 1998ko martxoaren 18ko Udalbatzaren erabakiaren bidez ezarri zuen eta hori 1998ko abenduaren 10eko notario-eskrituran sinatu zen, Amurrioko M^a Dolores García Arañaz notario andreaken aurrean (protokolo zk.: 1413).

BIGARRENA.- Erabaki hau Aiarako Udalari jakinaraztea eta itzultzea formalizatzea.

5.- EKAINAREN 28ko ERAKUNDE ADIERAZPENA, SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNEKOA

Bidali da deialdiari dagokion dokumentazioarekin batera, ekainaren 17ko bilkurako GIZARTE GAI, BERDINTASUN ETA KULTURAKO Informazio Batzordearen aldeko irizpena, zeinaren bidez aho batez onesten den atxikitako IRIZPENA. Irizpen horrek talde politiko batzarkide guztiek egindako ekarpenak hartzen ditu barne.

Batzordeburu andreak parte hartzeko gonbita egin du.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) adierazi nahi du Batzordeak lan ona egin zuela adierazpena talde politiko guztien ekarpenen arabera egin zelako eta era egokian lan egin zelako; beraz, oso hezigarria izan zen.

Eztabaida laburra amaitu ondoren, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- 2020ko ekainaren 17ko bilkuran saileko Informazio Batzordeak igorritako irizpena berrestea, horren edukia hauexek delarik:

EKAINAREN 28ko ERAKUNDE ADIERAZPENA. SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNEKOA AIARAKO KUADRILLA

Aurten ere, 1969ko ekainaren 28ko goizaldean Stonewall Inn tabernan gertatutakoaren oroimenak bultzatuta, beste behin bildu gara LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak aldarrikatzeko eta aniztasunetik abiatuta errespetuaren eta bizikidetzaren alde egiteko.

Orain arte lortutako guztia ospatu eta oraindik lortzeko daudenak nabarmendu nahi ditugu.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 28 DE JUNIO DÍA INTERNACIONAL POR LA DIVERSIDAD SEXUAL Y DE ÉNERO CUADRILLA DE AYALA

Un año más, el recuerdo de los hechos acontecidos en el bar Stonewall Inn la madrugada del 28 de junio de 1969, nos vuelve a reunir para reivindicar derechos y en pro del respeto y la convivencia desde la diversidad.

Una fecha a partir de la cual queremos celebrar los logros conseguidos y poner de



Berriro ere, azpimarratu nahi dugu aniztasunari buruzko politika publikoak ez direla bakarrik LGTBIQ+ kolektiboarentzat, herritar guztientzat baizik, eskubideak eta errespetua bermatzea jendarte guztiaren lana delako.

Egun honetan ezin dugu ahaztu Euskal Herrian mugimendu LGTBIQ+ eta feminista osatzen duten pertsona guztien borrokaren aldarrikapena, izan ere, eguneroko zereginetan, eta diskriminazio mota oro ezabatzeko lan eginez, gizarte benetan bidezkoa, berdinzalea eta feminista eraikitzeko funtsezko ekarpena egiten baitute. Euren borrokari laguntzeko gure konpromiso politikoak egunerokoa izan behar du, ez soilik adierazpenak eginez.

Era berean, ezin dugu ahaztu ere, COVID-19ak konfinamendura behartu duela mundu guztia eta kolektiboko pertsona asko erabateko babesgabetasunera eta ikusezintasunera eraman dituela.

Horretarako, Aiarako Kuadrillak, gainerako botere publiko, estamentu ofizial eta hezkuntza zentroekin batera, konpromiso hauek hartuko ditu jendarte bidezkoagoa eta berdinzaleagoa lortzeko LGTBIQ+ kolektiboarentzat.

Hala, 2020an, Arabako Foru Aldundiarekin batera, LGTBIQ+ Diagnostikoan parte hartzen gabilta. Bertan, elkarrizketen bidez, kolektiboaren eta aniztasunari buruzko politika publikoen egoera jasoko da, ondoren, ekintza proposamenak egiteko. Kuadrillak kontuan izango ditu proposamenok gure politika publikoak gauzatzeko orduan. Diagnostikoan, COVID-19ak kolektiboan eragindako ondorioak ere jasoko dira.

relieve aquellos aspectos que aún resta por conseguir.

Queremos insistir en que las políticas públicas de diversidad no están dirigidas sólo al colectivo LGTBIQ+, sino que son para el conjunto de la ciudadanía, pues garantizar derechos y respeto es tarea de toda la sociedad.

En este día no debemos olvidarnos de reconocer la lucha de tantas personas que conforman el movimiento LGTBIQ+ y feminista en Euskal Herria que en su día a día, y trabajando por eliminar toda forma de discriminación, hacen un aporte fundamental a la construcción de una sociedad realmente justa, igualitaria y feminista. Nuestro compromiso político de apoyo a su lucha debe ser diario, no solo en forma de declaraciones.

Tampoco podemos olvidar que este año, el COVID-19 nos ha obligado al encierro generalizado en todo el mundo y ha llevado a muchas personas del colectivo al más absoluto desamparo e invisibilidad.

Para ello, la Cuadrilla de Ayala se compromete a, con al resto de poderes públicos, estamentos oficiales y centros educativos, seguir concretando medidas que nos permitan conseguir una sociedad más justa e igualitaria para el colectivo LGTBIQ+.

Así, este 2020, estamos colaborando con la Diputación Foral de Álava en la elaboración del Diagnóstico LGTBIQ+ del territorio, donde por medio de entrevistas se recogerá la situación del colectivo y de las políticas públicas de diversidad y se harán propuestas de actuación, propuestas que tendremos en cuenta a la hora de diseñar nuestras políticas públicas. En este diagnóstico se recogerán también las consecuencias del COVID-19 en el colectivo LGTBIQ+.



Aipatutakoa kontuan izanda, Aiarako Kuadrillak eremu hauei eman nahi die lehentasuna:

- Hezkuntzan sexu eta genero aniztasuna integratzea, alor horretan ideia berriak sortzen laguntzea, eta sexu orientazioagatiko eta genero nortasunagatiko eskola jazarpenari aurre egiteko prebentzio lanaren oinarriak jartzea.

- Emakume lesbiana eta transak agerian jartzea, haren errealitatea onartzeko eta gizartean legitimatzeko, eta haren eskubideak askatasunez baliatzeko neurriak abian jartzeko eskatzea. Horren barruan, Erregistro Zibiletan irizpideak bateratzea eskatu nahi dugu, lesbianen bikoteek diskriminaziorik ez izateko umeen filiazio balditzetan.

- Esparru heteronormatiboaren alternatiba eta aniztasunaren espekto zabalaren parte izanik, legitimitatea eta errespetua behar duten sexualitate guztiak agerian jartzea.

- Sarritan alde batera uzten diren biztanle sektoreak, hala nola hirugarren adinekoak edota dibertsitate funtzionala dutenak, agerian jartzea, eta haien sexu eta afektibitate aniztasuna bizitzeko eskubidea bermatzea.

Hori horrela, Aiarako Kuadrillak konpromisu hauek hartu ditu:

- EAEn LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsa osoa eta araudiaren garapen egokirako beharrezko baliabide guztiak bermatuko dituen araudi espezifiko bat martxan jartzeko eskaera egitea.

- Diskriminazioa jasaten duten LGTBIQ+

Teniendo en cuenta todo lo expuesto, la Cuadrilla de Ayala considera prioritarios los siguientes ámbitos:

- La educación que integre la diversidad sexual y de género, contribuyendo a crear un nuevo ideario en la materia y sienta las bases de una labor preventiva ante el acoso escolar por motivo de orientación sexual e identidad de género.

- La visibilidad de las mujeres lesbianas y de las personas trans como forma de reconocimiento de su realidad y de legitimidad social, solicitando sean habilitadas aquellas medidas que garanticen el libre ejercicio de sus derechos. Dentro de este punto, queremos demandar la unificación de criterios en los Registros Civiles para que no se produzcan discriminaciones en los requisitos de filiación de menores en el seno de parejas de lesbianas.

- La visibilidad de todas aquellas sexualidades que, como alternativas al marco heteronormativo e integrantes del amplio espectro de la diversidad, requieren de legitimidad y respeto.

- El derecho a la vivencia de la diversidad sexo-afectiva y visibilidad de sectores de población muchas veces ignorados, como son las personas de la tercera edad y/o con diversidad funcional.

En ese sentido, desde la Cuadrilla de Ayala se complete a:

- Interpelar para la puesta en marcha de una normativa específica en la CAV que garantice la defensa integral de los derechos de las personas LGTBIQ+ así como todos los recursos necesarios para su correcto desarrollo.

- Facilitar y derivar a todos los recursos



pertsona guztiei, eta bereziki beren sexu, arraza, jatorri, egoera administratibo eta abarreatik zaugarritasun handiagoko egoeran dauden pertsonen sozialki, psikologikoki, juridikoki eta ekonomikoki laguntzeko beharrezko baliabide guztiak ematea.

- Egindako diagnostikoari erantzungo dion talka-plan bat diseinatzea, premiazkoenak diren ekintzak lehenetsiz, besteak beste, arlo hauetan: soziala, enplegua, osasuna, etab.
- LGTBIQ+ pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gaituzteko, aldagelak eta komunak egokitzea instalazio publikoetan, igerileku publikoen araudiak.
- Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak gauzatzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzak-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
- Ikuspegi feminista duten prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, COVID-19aren krisialdiaren testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari eta eremu desberdinetan LGTBIQ+ pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

necesarios para apoyar social, psicológica, jurídica y económicamente a todas las personas LGTBIQ+ que sufren discriminación, en particular a aquellas que se encuentran en una situación de mayor vulnerabilidad por su edad, raza, origen, situación administrativa, etc.

- Diseñar un plan de choque que responda al diagnóstico realizado, priorizando aquellas acciones más urgentes: ámbito laboral, social, sanitario, etc.
- Activar medidas dirigidas a garantizar los derechos de las personas LGTBIQ+ como: cambios en los formularios administrativos para superar el binarismo, adaptación de vestuarios y baños en instalaciones públicas, normativas de piscinas públicas.
- Realizar medidas dirigidas a la protección de niñas, niños y adolescentes transexuales, en particular procesos coeducativos que incluyan la realidad trans, con agentes socioeducativos.
- Impulsar procesos formativos con enfoque feminista dirigidos a personal público y político, particularmente en atención al público, ámbito social y educativo.
- Llevar a cabo campañas de sensibilización feministas adaptadas al contexto social de la crisis del COVID-19 que, a corto, medio y largo plazo faciliten la adquisición de conciencia crítica sobre la dicotomía sexo-género, la heteronormatividad y las múltiples expresiones y formas de la violencia y discriminación hacia las personas LGTBI en los diferentes ámbitos.



-
- Adinekoen egoitzetan hainbat neurri modu koordinatuan gauzatzea, LGTBIQ+ pertsonak beren aukera sexuala eta genero-aukera askatasunez bizi ahal izan dezaten, diskriminaziorik gabe, eta, besteak beste, honako hauek barne hartuta: sentsibilizazio-kanpainak, espazio binarioen berrantolaketa, eta LGTBIQ+ adineko pertsonen ekarpena ikusarazteko eta balioesteko jarduerak.
 - Pandemian zehar sortutako zaintza-sare komunitarioen, erakundeen eta LGTBIQ+ kolektiboen arteko elkarlana sustatzea, LGTBIQ+ ikuspegiarekin zaintzen lan-ildoak aktibatzeke.
 - Gure eskumenen esparruan, beste leku batzuetatik iristen diren eta beren sexu-orientazioaren eta/edo genero-identitatearen ondorioz jazarpena jasaten dutela adierazten duten pertsona guztientzako arreta osoa martxan jartzea.
 - Mugimendu LGTBIQ+ eta feministekin etengabeko komunikazio- eta lankidetzak irekitzea edo mantentzea, eta ekimen bateratuak martxan jartzeko baliabideak erraztea. Era berean, aurreko ekintza horiek guztiak mugimendu horiekin kontrastatu beharko dira.
 - LGTBIQ+ eskubideen errespetua ziurtatuko duten berdintasun eta aniztasun politika publikoak bultzatuko ditugu, LGTBIQ+fobiaren aurka eginez eta lesbo-gay-trans eta bisexualen kolektiboaren borroka bistaratzuz. Horien barruan, parte hartzen jarraituko dugu Kuadrillako hezkidetzak proiektuetan, sexu eta genero aniztasunaren ikuspuntua txertatuta baitago. Era berean, Arabako LGTBIQ+ Diagnostikoan ere parte hartuko dugu.
 - Errespetua eta elkarbizitza oinarri
 - Llevar a cabo de manera coordinada medidas diversas en las residencias de personas mayores para que las personas LGTBI puedan vivir en libertad su opción sexo-genérica, sin discriminación pudiendo incluir, entre otras: campañas de sensibilización, reorganización de los espacios binarios, y actividades para visibilizar y poner en valor el aporte de las personas mayores LGTBI.
 - Fomentar el trabajo en común entre las redes comunitarias de cuidados surgidas durante la pandemia, instituciones y colectivos LGTBI para activar líneas de trabajo de cuidados con perspectiva LGTBI.
 - Poner en marcha, en el marco de nuestras competencias, una atención integral a todas las personas que llegando de otros lugares argumenten ser perseguidas con motivo de su orientación sexual y/o identidad de género.
 - Mantener canales de comunicación y colaboración continuos con los movimientos LGTBIQ+ y feminista, y facilitar recursos para la puesta en marcha de iniciativas conjuntas. Asimismo, todas las acciones anteriores deberán ser contrastadas con estos movimientos.
 - Impulsar políticas públicas para la igualdad y la diversidad que garanticen el respeto a los Derechos LGTBIQ+, la lucha contra la LGTBIQ+fobia y la visibilización del colectivo. Dentro de estas políticas, seguiremos participando en los proyectos coeducativos de la Cuadrilla donde está incorporada la perspectiva de la diversidad sexual y de género y colaborando en el Diagnóstico LGTBIQ+ de Álava.
 - Trabajar por una sociedad basada en el



izango dituen jendartea lortzeko lan egingo dugu, homofobia, lesbofobia, bifobia eta transfobia desagerrarazteko lan egiten duten pertsona eta eragileekin elkarlanean.

- Ostadar bandera ezarriko dugu Kuadrillako egoitzan, kolektiboaren berdintasunerako borrokaren sinbolo gisa, eta, pertsona, elkarte, Gobernu Kanpoko Erakunde eta botere publikoek, gure gizarteak pertsona guztien giza eskubideak lortzeko bidea egin dezan, egiten duten ahalegina erakutsi.
- Ekintzak antolatu eta koordinatuko ditugu LGTBIQ+ kolektiboa bistaratu eta herritarren kontzientziak indartzeko, bertan parte hartzea animatuz.
- Adierazpena Kuadrillako webgunean jarriko da.

respeto y la convivencia en colaboración con todas las personas y agentes que trabajan para erradicar la homofobia, la lesbofobia, la bifobia y la transfobia.

- Colgar la bandera arco iris en la sede de la Cuadrilla como símbolo de la lucha por la igualdad del colectivo, demostrando el esfuerzo conjunto de personas, asociaciones, ONGs y poderes públicos que hacen que nuestra sociedad camine hacia la consecución de los derechos humanos para todas las personas.
- Organizar y coordinar actividades para visibilizar y concienciar sobre el colectivo LGTBIQ+ y animar a la ciudadanía a participar en ellas.
- Publicar esta declaración institucional en la página web de la Cuadrilla.

6.- BATZORDEBURUAREN ESKUMENEN ORDEZKARITZA BERRIAREN ETA GORAGOKO ESKUMENAK BEREGANATZEAREN KONTU EMATEA TOKIKO GOBERNU BATZORDEAN.

Indarrean dagoen legediari jarraikiz, Batzordeburuaren eskumenen ordezkari berriaren eta goragoko eskumenak bereganatzearen kontu eman zaio Kuadrillaren Batzordeari. Hori honako Presidentetza Dekretu hauen bitartez onetsi da:

- Alarma-egoera deklaratzaren ondorioz eta COVID-19 eragindako pandemiatik eratorritako ezarri behar diren jarduerak exekutatu ahal izateko, Batzordeburuak egokitzat jo zuen Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetutako goragoko eskumenak bereganatzea, eta, martxoaren 17ko 20/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUAREN bidez, eskumenen bereganatze hori exekutatzen igaro zen. Batzordeburuak goragoko eskumenak bereganatzeko jarduketara hori Kuadrillaren Tokiko Gobernu Batzordearen urriaren 31ko 56/2019 Dekretuaren bidez egin zen.



-
- Era berean, behin Kuadrillak bitarteko telematiko egokiak zituenean eta deseskaladako faseekin hasi zenean, berriz ere eskuordetu zizkion aipatutako eskumenak Tokiko Gobernu Batzordeari, maiatzaren 12ko 43/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUAREN bidez, Tokiko Gobernu Batzordeari Batzordeburuaren eskumenak eskuordetzeari buruzkoa.

Batzordeburu andreak egindako jarduketa laburtu du; azaldu du bere eskumena dela TGBarri eskuordetutako goragoko eskumenak bereganatzea, eta, zentzu horretan, iragan martxoaren 17tik maiatzaren 12ra arte, goragoko eskumenak bereganatu zituela aipatutako dekretuen bidez, behin aurretik gaia alkateekin adostuta, pandemiaren lehen momentuak kudeatzeko lehen fasean, eta, aukera izan bezain laster, eskumenak itzultzea.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) azaldu du ondo deritzola maiatzaren 17an hartutako erabakiari, eta horrek zalantzan jartzen du ekainaren 17ra arte ez zirela ohartu eta erabakia hartu zenetik bi hilabete igaro zirela. Bere iritziz, garrantzitsua da udal-taldeak informatuta mantentzea eta uste du ez dela egokia Tokiko Gobernu Batzordearen dokumentazioa heldu arte ezer ez jakitea. Adierazitakoaren arabera, organo honen parte ez diren taldeei informazio gehiago emateko eskatu du.

Romero Campos jaunak (SOZIALISTEN bozeramaile gisa) ulertzen du 40/2015 Legean ezartzen direla Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren jarduketa-teknikak, eta goragoko eskumenak bereganatzea teknika horietako bat dela. Aipatu du bere taldea ere ez dagoela Tokiko Gobernu Batzordean, baina horietara gonbidatu egiten dutela. Bat dator organoan ez dauden taldeei informazioa ematearekin, baina goragoko eskumenak bereganatzearen gaia Batzordeburuaren eskumena da.

Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) zehaztu nahi du eskumenak maiatzaren 12an itzuli behar direla, eta ez ordea aipatutako datan. Organo horren deialdirako bidalitako dokumentazioaren bitartez emandako informazioa maiatzaren 20a baino lehenagokoa da; egun horretan egin zen TGBarren bilkura, ez ordea, esan bezala, ekainaren 17an. Gaineratu du goragoko eskumenak bereganatuko dituztela pandemiaren parte txarrena kudeatzeko momentu egokienean. Batzordeburuak goragoko eskumenak bereganatzeari dagokionez, lege baldintzek soilik ezartzen dute egiten den lehen bileran Udalbatzari horren berri eman behar zaiola, eta hori oraintxe bertan egiten ari da.

Eztabaida bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

7.-CESPA SArri KONTRATUA BETE EZ DUELAKO IREKITAKO ESPEDIENTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Labur, espediente honen egoerari buruzko informazioa eman da:

- 2019ko irailaren 17a: TGBan adostu zen CESPA enpresari bere ez-betetze guztien jakinarazpen fede-emaile bat bidaltzea. Halaber, dagozkion zehapenen berri ere eman zitzaion. Eman ez diren zerbitzuen inguruko txosten bat eskatu zen.
- 2019ko azaroaren 4a: CESPAk emandako zerbitzuen eta eman ez zituen zerbitzuen kostuen inguruko txostena egin zuen.



- 2019ko azaroaren 11: TGBan adostu zen CESPAn enpresari jakinarazpen bat bidaltzea zerbitzuaren emakidaren egoerari eta horren ondorioei buruzko txosten juridiko bat eta txosten tekniko batekin batera.
- 2019ko abenduaren 16a: jakinarazpena bidali zen, txosten teknikoarekin eta eman ez ziren zerbitzuen fakturei dagozkien deskonturako aurreikusitako zenbatekoekin batera.
- 2020ko urtarrilaren 21a: CESPArekin izandako bileran, Kuadrillak kontratatutako aholkulari juridikoak jakinarazi zuen ematen ez diren zerbitzuengatik ez ezik, modu desegokian emandako zerbitzuengatik ere deskontua dagoela. Jakinarazi zitzaizkien fakturaren deskontu posible hori baloratuko zela, edo, beharrezkoa izanez gero, dagozkion zehapenak ezarriko zirela. Horrez gain, kronograma berri bat eskatu zitzaizkien, zeinetan martxan jarri beharreko zerbitzuak agertzen ziren.
- 2020ko urtarrilaren 29a: CESPAn honako kronograma hau entregatu zuen, zerbitzu osoa ezartzeko.

CRONOGRAMA DE IMPLANTACIÓN DE MEJORAS DEL SERVICIO		ENERO			FEBRERO				MARZO				
PLAN DE ACTUACIONES	DETALLE	Sem 3	Sem 4	Sem 5	Sem 6	Sem 7	Sem 8	Sem 9	Sem 10	Sem 11	Sem 12	Sem 13	Sem 14
Control y supervisión del servicio Mawis/MOBA	Pesaje embarcado, RFID, GPS												
	Implantación de tags en contenedores												
	Acceso de la Cuadrilla a la aplicación												
	Formación de la Cuadrilla												
Comunicación con el ciudadano, portal de incidencias	Línea atención telefónica												
	Línea 900 recogida enseres	Implantado 2019											
	Aplicación Móvil												
	Accesos de la Cuadrilla a la plataforma de incidencias												
Entrega de vehículos	2 Camiones carga lateral, 1 Cabeza tractora	Entregados 2019											
	Entrega segundo remolque autocompactor												
	Camión carga trasera PaP Comercios												
Estudio-piloto de control de acceso a contenedores	Presentación a la Cuadrilla												
Instalación de 8 nuevos Ekoguneak Minipuntos	3 Laudio, 2 Amurrio, 1 Artziniega, 1 Aiara, 1 Okondo												
Estudio técnico-económico PaP residuos no peligrosos Polígonos													
Servicio PaP Comercial de papel y Cartón	2 Artziniega	Implantado 2019											
	2 Okondo	Implantado 2019											

- 2020ko martxoaren 12a: kronogramaren lehen 10 asteak igaro ondoren, bilera bat deitu zen zerbitzu horien ezarpen-maila balioztatzeko. Aholkulari juridikoak txosten bat aurkeztu zuen, eta bertan adierazi zuen eman ez ziren zerbitzuetatik eta gabeziekin emandako zerbitzuetatik eratorritako zehapenen balorazio ekonomikoa.
- 2020ko apirilaren 2a: CESPAn jakinarazi zitzaion interesdunari entzunaldia emateko izapiderearen irekierari buruzko apirilaren 2ko 34/2020 Presidentetza Dekretuak dakarrela kontratua ez betetzeagatik zehapenen ezarpen kasuan alegazioak aurkezteko epearen hasieraren jakinarazpena.
- 2020ko apirilaren 21a: CESPAn egindako alegazioak sarrera-erregistroan sartu ziren. Alegazio horiekin batera, 2019ko fakturak ordaintzean berandutzeagatik interesen errekerimendua igorri zen.
- Aurkeztutako alegazioak ikusita, gaia aztertu zen 2020ko maiatzaren 20an egindako TGBaren bilkuran. Kontratazio arloko aditu Umerez jauna bilkura horretara bertaratu



zen zehapen-egintzen edukia eta espediente honen erabaki-proposamenaren edukia azaltzeko.

- 2020ko ekainaren 3an TGBak egindako bilkuran, zehapen-proposamena egin zen kontratuaren ez-betetzeengatik eta betetze akastunengatik. Proposamen hori Esteban Umerez kontratazio arloko adituaren txosten juridikoaren eta Leire Dueñas ingurumen teknikariaren txosten teknikoaren bidez egiaztatu da.

Erabaki horrek, zehapen-proposamenarekin batera, interesdunari entzunaldia emateko izapide berri bat du, zeinak 10 eguneko epea ezartzen duen alegazioak egiteko; izan ere, CESPak aurkeztutako alegazioen erantzunak dokumentazio sakonago berri baten igorpenean oinarrituta zeuden, eta hori ez zitzaion kontratistari formalki jakinarazi. Dokumentazio horrek zehapen-proposamenaren berrespena justifikatzen du, CESPak aurkeztutako alegazioen analisiaren ostean. Era berean, CESParen 2019ko judizioz kanpoko aitortpena egin da, premiazko Presidentetza Dekretu bidez, krisialdi garaian kontratuaren desoreka ekonomikoa ekiditeko, segidako traktuko ezinbesteko zerbitzua baita, premia bizikoa. Halaber, Kuadrillako Batzordeari horren kontu emango zaio egingo den lehen bileran.

Bilkurako deialdiarekin batera, espediente horri buruzko dokumentazio guztia atxiki egin da.

Batzordeburu andreak parte hartzeko aukera eman du.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) adierazi du harrituta dagoela puntu hori garrantzi bizikoa zelako, baina, halere, ez delako horri buruz lehenago informaziorik eman, ezta teknikariei ere.

Batzordeburu andreak azaldu du espediente hori ez dela berria; izan ere, 2019ko legealdian eman zitzaion hasiera. Gehitu du espediente horri buruzko informazioa egon dela gaia landu den TGBak egindako bilkura guztien inguruko bidalitako dokumentazioan, eta, hortaz, talde politiko guztiek izan dutela informazioa.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) azaldu du Kuadrillaren zerbitzurik garrantzitsuena dela, eta harrituta dago batzordeetan ez delako horri buruzko informaziorik eman eta teknikariek ere ez dutelako informaziorik jaso.

Batzordeburu andreak jakinarazi du TGBaren bilkura guztietara bertaratzeko gonbidapena egin zaiola, hori baita aipatutako espedienteari buruz eztabaidatzeko tokia, eta, gainera, batzorde horretara bertaratu dela horretarako kontratatutako abokatu bat, baina, hala eta guztiz ere, ez direla bilkura horietara bertaratu.

Parro Uzquiano andrea (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) kexatu da Administrazio Batzordeetako buruek zerbitzu horri buruzko informazio gutxi jasotzen dutelako, eta, gainera, ez dutelako informazio horren berri.

Irabien Marigorta andreak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) azaldu du gero eta informazio gehiago dagoela arlo guztietan, batez ere, sarbide informatikoetan, baina, kontua da administrazioetako teknikariek udal-espedienteetako gai tekniko asko jorratu behar



dituztela, eta horiek teknikariz teknikari planteatu eta konpontzen dituztela. Alkateak ez dira arazoak konpontzen dituzten jauntxo feudalak, kasu honetan, zerbitzu horretan, kontratuaren ondoz ondoko ez-betetze batzuk dira, zeinak txosten teknikoak oinarri hartuta konpontzen diren.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) galdetu du ea informazioa eman zaien Administrazio Batzordeetako buruei zuzenean, eta ea hori saileko teknikari Dueñas andreak egin duen.

Rodriguez Orue jaunak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) jakinarazi du, berak, herritar xumea den partetik, ez duela arazorik, ederki funtzionatzen duen Línea Verde aplikaziotik hartzen baitu informazioa, eta, horren bitartez, ez duela arazorik zerbitzuari buruzko informazioarekin, bolumen handiko hondakinak noiz biltzen diren jakiteko, eta abar.

Irabien Marigorta andreak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) azaldu du, espediente horren larritasuna dela eta, TGBtik jarraipen bat egin zaiola, eta, hasieratik, enpresari txartel gorria atera zitzaioela, zerbitzu hori emateko moduan egon den desadostasunarengatik, eta horrek argi utzi duela lan egiteko beste modu serio bat badagoela.

Vivanco Retes jaunak (EH BILDUko bozeramaile gisa) azaldu du Dueñas teknikari andreaken lanak urrezko domina merezi duela, paregabea izan dela, eta ez duela hari aurpegiatzeko ezer ere. Gaineratu du informazioaren gaiak konponbidea duela, izan ere, TGBaren bilkuretara gonbidatuak izan dira, eta bilkura horietara abokatu bat bertaratu zela eta espedientearen edukia oso argi utzi zuela.

Batzordeburu andreak gogorarazi nahi du talde guztiak daudela beti gonbidatuta TGBaren bilkuretara, eta, aurreko bilkuretako deialdietan iragarri zela jada, legezko betebeharra dela talde guztiei jakinaraztea Umerez abokatu jauna bertaratuko zela espedienteari buruzko azalpenak ematera eta aipatutako zalantzak argitzera.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) azaldu du ez direla bilkura horietara bertaratzen horietan ez dutelako beren iritzia ematerik, berari behin esan baitzioten idatzita ez dagoena existitzen ez dela, eta, beraz, baten hitza bestearen hitzaren kontra baino ez litzateke izango.

Batzordeburu andreak erantzun dio badutela bilkura horietan beren iritzia ematea, eta, beraz, bertan askatasunez hitz egin dezaketela. Gehitu du aipatu duten informazio falta konpon zezaketela kontratazio arloko adituarekin batera egindako batzordeetara joan izan balira, bertan beren zalantzak argitu izan lituzketelako.

González García andreak (OMNIAko bozeramaile gisa) azaldu du, zalantzak argitzeari dagokionez, beraiek erreferentzia egiten ziotela batzordean bertan zalantzak argitzeari, gero, osoko bilkuretan jorratu behar ez izateko; izan ere, zalantza horiek egin ez den bilkura batean argitu izango balira, ez zatekeela halako informazio ezaren arazorik sortu izango.



Batzordeburu andreak erantzun dio osoko bilkurara ekarri dela espedientearen kontu emateko, baina organo eskuduna TGBa dela, eta bilera horietara gonbidatuta zeudela bertan zalantzak argitu eta beren iritzia emateko.

Barrios Medina jaunak (OMNIAko bozeramaile gisa) azaldu du espediente batzordera eraman izan balitz eta zegokion informazioa eman izan balitz, ziur aski, gai hori aho batez onetsi izango zatekeela; halere, jarduera ez zen hori izan.

Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa), kontzeptuak argitu nahian, adierazi du, informazioari eta zalantzak argitzeari dagokionez, TGBetara joateko aukeraren berri eman zaiela, eta, konkretuki, aholkulari juridikoa bertaratu zela horietara, zeintzuetan edonolako informazioa eska eta zalantzak argi zitzaketen. Halaber, gehitu du batzorde horietan beren iritzia aintzat hartzen dela, eta beste kontu bat dela gaia ebazteko organo eskudunaren parte ez direla; baina, berez, informazioa eduki ahal zuketena.

Pinedo Badillo jaunak (EAJ-PNVko bozeramaile gisa) adierazi du azpimarratu nahi duela saileko teknikaria beti dagoela eta prest egon dela sortzen diren galderei erantzuteko, baina ez duela ulertzen saileko teknikariari buruz lehen esan dena.

Minutu batzuk gehiago luzatu egin da espedienteari, kontratuari eta saileko teknikariari buruzko informazioaren inguruko eztabaida.

Eztabaida bukatu ostean, jakinaren gainean geratu dira guztiak.

8.- COVID-19ak ERAGINDAKO OSASUN-KRISIALDIAREN EGOERA ARINTZEKO HARTU DIREN PREBENTZIO-NEURRIEN KONTU EMATEA

8.1.- INGURUMEN SAILA:

- Martxoaren 16a: informazio-oharra bidali zen, zeinetan biltzen diren hondakinen bilketa zerbitzuaren eta Laudioko garbigunearen prebentzio-neurriak (azken hori irekiko da, prebentzio-neurriekin), COVID-19aren ondorioz.
- Martxoaren 22a: gomendatu zen (justifikatutako larrialdietan izan ezik) bolumen handiko hondakinak ez botatzea zaborretara eta Garbigunea itxi zen (larrialdi kasuan irekiko da).
- Martxoaren 30a: edukiontzietan jartzeko kartel edo pegatina diseinatu eta jarri zen. Hondakin gehiago sortzen zirela antzeman eta edukiontzi gehiago jarri ziren.
- Maiatzaren 4a: bolumen handiko hondakinen bilketa berriro ere jarri zen martxan.
- Maiatzaren 11: Laudioko garbigunea berriro ere ireki zen (prebentzio-neurriekin). AFAk Amurrioko garbigunea eta puntu berde mugikorra ireki zituen.
- **CESPA ENPRESAREKIN DUGUN KONTRATUA LUZATZEA DESINFEKZIO LANAK EGITEKO (COVID-19arengatik), 8 ASTETAN ZEHAR:** Martxoaren 26an, egun horretako 27/2020 PRESIDENTETZA



DEKRETUAREN bidez, CESPAn enpresari kontratua luzatu egin zitzaion edukiontzia desinfektatzeko. CESPAn bi motxila lainoztagailu erosi zituen, baita 360 litro desinfektatzaile inguru ere (sodio hipokloritoa). Orain arte desinfektzioak kamioi hidro-garbitzaile batekin egiten ziren, baina, egoera ikusita, garbiketa lanak indartzeko beharra ikusi zen. Xede horrekin, desinfektzio lanetarako operario bat gehiago kontratatu zen astelehenerik larunbatera eta beste garbiketa ibilgailu bat ezarri zen. Aste bakoitzeko kostua 3.146,64 eurokoa da (BEZik gabe), udalen artean banatzekoa.

Erabiltzea egokitzat jotzen den banaketa irizpidea hondakin mota guztien (hondarkinak, ontziak, papera eta organikoa) sorreraren zenbatekoa da, bilketa pneumatikoa barne; izan ere, desinfektzioa edukiontzi mota guztiei aplikatzen zaie. Kontuan hartu behar dugu kalkuluak 2019ko datuen arabera egin direla; hortaz, zertxobait alda liteke, geroago 2020ko datu errealekin eguneratu beharko liritekeelako, baina, halere, aldaketa minimoa izatea espero da.

Hasierako kalkuluak % 21eko BEZa aintzat hartuta kalkulatu baziren ere, zerbitzu motarengatik % 10eko BEZa aplikatu behar zaio, eta, ondorioz, banaketa honelakoa izango litzateke:

	Banatzeko %	Aste bakoitzeko banaketa BEZarekin
AMURRIO	% 34,42	1.191,22 €
ARTZINIEGA	% 6,34	219,60 €
AIARA	% 11,95	413,56 €
OKONDO	% 4,04	139,89 €
LAUDIO	% 43,25	1.497,03 €
KOSTUA	% 100,00	3.461,30 €

- Aipatu da Dueñas andrea kontratatu egin dela hilabeteko epean zehar, ingurumen-teknikariek espedienteak komunean jar ditzaten.

8.2.- LANGILE SAILA

Sail horretan honako neurri hauek ezarri dira:

- Teledana gauzatzeko informatika-materiala eskuratzea.
- Postu guztietan teledana egitea, eta, Kuadrillan, aurrez aurreko asistentzien egutegi bat sortzea.
- **COVID-19aren KONTINGENTZIA-PLANA ETA AURREIKUSITAKO EKINTZAK:** Langileak Kuadrillako bulegoetako lan fisikoa egiten hasteko (udal-bulegoetan teknikariek egindako lanaren segurtasuna eta plangintza erakunde horien kontu izango da), Mutuak honako hau igorri du: **VIII. ERANSKINA** Mutuak bidalitako COVID-19aren kontingentzia-plana eta aurreikusitako ekintzen planaren I. eranskina, **IX. ERANSKIN** gisa.



Aurkezpena amaitu ondoren eztabaidarik sortu ez denez, denak geratu dira jakinaren gainean.

9.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN KONTU EMATEA

Azken bilkuratik onetsitako Presidentetza Dekretuen kontu eman da:

- 67/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, abenduaren 19koa. Abenduko nomina eta aparteko ordainsaria baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.
- 68/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, abenduaren 19koa. Hondakinak kudeatzeko zerbitzurako udal-ekarpenak eskatzea, 2019ko 4. hiruhilekoari dagozkionak.
- 69/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, abenduaren 30ekoa. Aiarako Udalaren hirigintza-aholkularitzako kontratua luzatzea.
- 01/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 1ekoa. 2019ko aurrekontua luzatzea.
- 02/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 10ekoa. 1. hiruhilekoko zerbitzuen eta gastu orokorren behin-behineko eskaera.
- 03/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 13koa. 18-19 EEPa likidatzea (Eskualdeko Enplegu Plana).
- 04/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 24koa. 2019ko hirigintzako saldoa eskatzea.
- 05/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 24koa. 10/2019 kreditu-transferentzia (langileen Gizarte Segurantzza).
- 06/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 24koa. Baimena ematea 2020ko ordainsarietako igoera aitortzeko.
- 07/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 27koa. 2020ko urtarrileko nomina baimentzea, betebeharra aitortzea eta ordainketa agintzea.
- 08/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urtarrilaren 29koa. 2019ko argiari, urari eta kanpainei dagozkien gastuak eskatzea.
- 09/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, otsailaren 20koa. 11/2019 kreditu-transferentzia (gastu juridikoak).
- 10/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, otsailaren 27koa. 2020ko otsaileko nomina ordaintzea baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.
- 11/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, otsailaren 27koa. Garbiguneko atearen konponketa esleitzea.
- 12/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, otsailaren 27koa. Garbigunerako ordenagailu bat eta inprimagailu bat eskuratzea.
- 13/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 3koa. 2019ko zerbitzuei eta gastu orokorrei dagozkien ekarpenak arautzea.
- 14/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 3koa. 2019ko gizarte ongizateari dagozkion ekarpenak arautzea.
- 15/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 6koa. 2019ko HHSei dagozkien ekarpenak arautzea.
- 16/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 16koa. 2019 ekitaldiko likidazioa onestea.
- 17/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 16koa. 2020ko martxoko nominaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.



-
- 18/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 16koa. Kredituak sartzeko 1/2020 espediente (GFA sartzea).
- 19/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 16koa. Aiarako Kuadrillak, COVID-19aren kontingentzia- eta saiheste-neurriak hartzea.
- 20/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 17koa. Presidentetzak Kuadrillaren Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetutako eskumenak bereganatzea, urriaren 31ko 56/2019 Dekretuaren bidez.
- 21/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 17koa. Aiarako Kuadrillaren ELKARKIDETZARI langileak atxikitzearen finantzaketa.
- 22/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 17koa. 2/2020 kreditu-gaikuntza (Elkarkidetza).
- 23/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 17koa. 3/2020 kreditu-transferentzia (ontzi bilketa).
- 24/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 17koa. VITAL ARABAN ZEHAR 2020.
- 25/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 18koa. 4/2020 kreditu-gaikuntza (informatika ekipoak).
- 26/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 23koa. Garbiguneko baskularen egokitzapena esleitzea.
- 27/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 26koa. CESPARI esleitzea, COVID-19aren ondorioz, edukiontzia desinfektatzeko lanen kontratuaren luzapena.
- 28/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 26koa. 5/2020 kreditu gaikuntza (edukiontzia desinfektatzea).
- 29/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 27koa. Garbiguneko etxolaren eraisketa esleitzea.
- 30/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 27koa. Garbiguneko bideo-zaintza sistemaren konponketa esleitzea.
- 31/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, martxoaren 30koa. Informatikako materiala eskuratzea.
- 32/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 1koa. 2. hiruhilekoko zerbitzuen eta gastu orokorren behin-behinean eskatzea.
- 33/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 1koa. Hondakinak kudeatzeko zerbitzuarengatik udal-ekarpenak eskatzea (2020ko 1. eta 2. hiruhilekoa).
- 34/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 2koa. CESPASA enpresari interesdunari entzunaldia ematea onestea.
- 35/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 2koa. 6/2020 kreditu gaikuntza (turismoa).
- 36/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 8koa. Papera saltzeko kreditua.
- 37/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 8koa. 7/2020 kreditu gaikuntza (paper salmenta).
- 38/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, apirilaren 21koa. 2020ko apirileko nominaren ordainketa baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.
- 39/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 4koa. Onestea 2019ko fakturen ordainketa CESPASA enpresari. (dekretu hau gai-zerrendako 3. puntuaren xede izan da).
- 40/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 6koa. Turismo sektorerako laguntzak eskatzea.
- 41/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 7koa. TEFFFK finantzatutako hirigintza aholkularitzako zerbitzua kontratatzea Amurrioko Udalarentzat.



42/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 8koa. 2020-05-07, HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA ETA KUDEAKETAREN EZARPENA SUSTATZEKO FORU ALDUNDIKO DIRULAGUNTZA ESKATZEA.

43/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 12koa. PRESIDENTETZAREN ESKUMENAK ESKUORDETZEA TOKIKO GOBERNU BATZORDEARI.

44/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 14koa. Ingurumen saileko teknikaria aldi baterako kontratatzea.

45/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa. 8/2020 kreditu gaikuntza (garbiguneren konektagarritasuna).

46/2020 PRESIDENTETZA DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa. 2020ko maiatzeko nomina ordaintzea baimendu, betebeharra aitortu eta ordainketa agintzea.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZeko bozeramaile gisa) galdetu du ea zergatik sartu diren soilik maiatzaren 25era arte emandako dekretuak.

Erantzun diote bilkuraren lehenengo deialdia bidali zen egunera arte erabakita zeudenak eman direla, eta hori ez zela aldatu langileen COVID-19ko testen inguruko arrazoiengatik bilkuraren data aldatu zen arren.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:45**ak direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau; eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

BATZORDEBURUA. Sin.: Encina Castresana Astaloea.

IDAZKARIA. Sin.: M^a Virginia Carcelén García.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE